

Azoka solidarioa eta Fabore enkantea. Etorri eta Ekarri Eskolara!

Beste urte batez, Hizkuntza Eskola Ofizialak Azoka solidarioa + Fabore Enkantea antolatuko ditu.

Bi ekintzen helburua GKE bati edo proiektu solidario bati laguntza ekonomikoa ematea da eta Eskolako hezkuntza-komunitateko kide guztien artean aukeratuko dugu,

Hasteko, **materiala uzteko eskatzen dizugu**. Azoka egin baino lehen **Atezaintzan** utzi besterik ez duzu egin behar.

Jarduera bakoitza zertan datzan azalduko dizuegu:

1. Azoka solidarioa

Abenduaren 20an eta 21an, goizez eta arratsaldez, Eskolan salmenta-postuak egongo dira, Areto Nagusian, beheko solairuan, non hainbat hizkuntzako materiala (CDak, DVDak, testuliburuak, aldizkariak, nobelak, eta abar.) oso prezio merkean salduko den.

Postu horietaz arduratzeko, Eskolako irakasle eta langile anitz boluntario arituko dira, normalean ordubetez. Ikasleei ere onbideko ekintza horretan laguntzeko eskatu nahi genizueke. Animatzen bazarete, izena eman dezakezue web orrian agertuko den Googleren formulario baten bidez.

2. Fabore enkantea

Abenduaren 17a arte jasoko dira zuen eskaintzak. Jardueraren helburua da modu boluntarioan gure denbora ematea zerbitzuren bat eskaintzeko edo interesa duen beste pertsona bati faboreren bat egiteko. Adibidez, patinatzen irakats dezakeen norbait, hostopil-tarta egiten dakiena, zurekin Beriainera igoko dena, ordubeteko ingelesezko mintzapraktika eta abar. Horren truke jaso nahi duzuen zenbatekoa adierazi behar da. Zuen harremanetarako datuak ere jarri beharko dituzue.

Azoka solidarioa egiten den egunetan,, ohol batean jarriko da eskaintzen diren jardueren zerrenda. Eskaintzak ikusi eta bat erosi besterik ez duzu egin behar.

Pentsatu zuen laguntza eta parte-hartzea oso garrantzitsuak direla edozein elkartetarako. Anima zaitetzke parte hartzera!

Eta ez ahaztu, mesedez, **ekarri erabiliko ez duzun materiala Eskolara!**